

# BERRIGARA

85. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1.992, azaroak 20

**IHESAREN**  
INGURUKO  
ASTEA  
BERGARAN

**ANTZUOLA:**  
YUGOSLABIA  
ZENEKO  
ERREFUXIATUEI  
LAGUNTZEKO  
BATZORDEA  
SORTU DA

## KIROLAK

MARTIN  
ARRIARAN,  
ESPAINIAKO  
XAKE  
TXAPELKETAN  
PARTE  
HARTZEN DUEN  
LEHEN  
BERGARARRA



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA  
ADIMENTSUA**



**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEN:  
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA  
ETA GOJERRI GARAlrako  
kontzesionaria



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK. HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

OPEL



**ABOKATUAK**

ALBISUA URIBARRI, BEGOÑA - Bidekurutzeta, 10 .....	765029
ALTUBE BENGOA, ELISABET - San Pedro, 6 .....	764552
MAIZTEGI MUJIKA, BERNARDINO - Bidekurutzeta 6...	761081
MOZOS MUJIKA, ANA - San Pedro, 6 .....	764552
ZABALETA ABOKATUAK - Ibargarai, 2 .....	762171

**AHOLKULARITZA**

AIERDI ASESORIA - Artekale, 1 .....	760350
ALFIS ASESORIA - Ibargarai, 22 behea .....	764848
ZUHURKI S. L. - Bidekurutzeta, 46, behea .....	763353
ARKUPEI ASESORIA - Espaloia, 12 .....	762609

**AKADEMIAK**

EQUIPO DE APOYO... - Artekale, 21 behea .....	765261
-----------------------------------------------	--------

**AKADEMIAK - HIZKUNTZAK**

ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH - Ibargarai, 31 .....	760353
LA PUERTA AL INGLES - Burdiñate, 5 .....	763001

**ALBAITEROAK**

BALDANA ALBAITERITZA KLINIKA - Koldo Elizalde, 28 behea .	762797
-----------------------------------------------------------	--------

**ALTZARIAK**

BILTOKI - San Pedro, z/g, .....	763400
HALTZARI - Bolu, 24 behea .....	763057
HERRAN - Matxiategi, 4 .....	763753
GURIDI ALTZARIAK - Artekale, 8 .....	763102
LIZAR ALTZARIAK - Dr Fleming, 5 .....	761653
REMENTERIA ALTZARIAK - Artekale, 6 .....	761329

**ARGAZKIDENDAK**

ARGAZKI - Barrenkale, 16 .....	762066
FOTO SISTEMA - Kruz Gallastegi, 2 A behea .....	760050
KINU - Barrenkale, 35 .....	765805

**ARROZTEGIAK**

AZKARATE ARROZTEGIA - Mahasterreka, 18 behea .....	761893
----------------------------------------------------	--------

## Hauek eta beste 500 baino gehiago Berrigara Gidan!! ...Eta zu?

Gabonetan Bergara eta Antzuolako **Gida Komertziala** kaleratuko dugu. 3.500 etxetan sartuko den **Gida**. Bergara eta Antzuolako komertzio, enpresa, profesional, etabarren telefonoak bilduko dituen **Gida**. Larrialdietarako telefonoak, kirol eta kultur elkartenak, elkarte gastronomikoenak etab. bilduko dituen.

Zeure telefonoa ere jarri nahi baduzu, dei egiguzu 76 03 97 telefonora **azaroaren 30a baino lehen** (astelehenetik ostiralera goizeko 11.00etatik 13.00etara eta arratsaldeko 16.00etatik 18.00etara).

Ez zaitez jokoz kanpo geratu, zeure intereserako da!!.

# BERRIGARA

# Gida



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurilaritza

**Erredakzioa**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkorobereziabar

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Edurne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:** Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
Labaian

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel

Angel Elkorobereziabar, J. M.

Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,

Maripi Laskurain, N. Alzelai,

Ainhoa Leta, Jon A. Bengoa, M.

Lizarralde, Monika Belastegi, M.

Elkorobereziabar, Aitziber

Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.

Sorondo.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A.

Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.

Garzia, D. Santos, P. Retolaza,

Kifu eta Pol-Pol Mendizale

Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu

Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esa-  
nen eta eritzien erantzunkizunik.



**Aldizkari honek**

Eusko Jaurilaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

## PROTAGONISTAK

### SOLDADUTZA

Soldadutzaren zoz-  
keta izan dugu bai as-  
teko protagonista, be-  
rau egiteko adinean  
diren gazteen artean  
batipat. Defentsa Mi-  
nisteritzak astearean  
eginiko 1.992.eko sol-  
dadutza zozketan He-  
go Euskal Herriko  
12.000 gazte inguru  
sartu ziren, horietatik  
80 bat bergararrak zi-  
relarik.

Aurten, gainera, le-  
hen aldiz zozketa or-  
denadorez egin da eta  
emaitzak ez dira gaur  
edo bihar arte ezagu-  
tzera emango.

Bergarako BOTA  
talde antimilitaristak  
esan duenez, oraindik



ezinezkoa da jakitea  
zenbatek hartuko du-  
ten intsumisioa edota  
objeizioaren bidea gure  
herrian, baina Hego  
Euskal Herriatik solda-  
dutza egin behar duten  
gazteetatik kolektibo  
honek % 60-70a osa-  
tzen du gaur egun.

### 80 bat gazte bergarar astearteko zozketan

## ITURRI ONETIK

### Gabonetako argiak 9 kaletan

Plazan, Bidekurutzeta, Artekale, Barrenkale,  
Ibargarai, Simon Arrieta, Arrurriaga, Irala eta Pedro  
Deuna kaleetan jarriko dira aurten Gabonetako  
argiak. 6 milioi t'erdi pta.ko aurrekontuarekin, iaz  
bezala, Ilanor S.A.k egingo du instalakuntza eta  
argiak abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra bitartean  
piztuko dira. Kultura Zerbitzuak denda, banketxe eta  
bestelako komertzioei finantzaketan laguntzeko  
eskaria egin die.

## ESAN DUTE

"Oso fuerte aurkitu  
naiz Zarautzko  
proban. Aurten, fetxa  
honetan, iaz  
korritutako proben  
erdia daramat eta  
denboraldi garai  
honetarako ondo  
nabil, uste baino  
hobeto. Nere asmoa  
TVEko Challengeean  
eta Munduko  
Txapelketan postu  
onak lortzea  
litzateke".

**IÑIGO IGARTUA**  
Txirrindularia  
EL CORREO

"Euskal gazteriak  
bizipenetan,  
jatorrietan nola  
expresibideetan  
izugarriko  
aniztasuna isladatzen  
du. Adierazle  
amankomunak  
aurkitzea oso zaila  
da. Azterketa  
soziologiko mardul  
bat osatzeraino  
eramango gintuen  
faktore gehiegi  
kontutan hartu  
beharko genituzke".

**MIKEL ZUBIMENDI**  
JARRAiko militantea  
EGUNKARIA

Afse den zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

# ZUBIAURRE

## AROZTEGIA

- Sarrerako eta barruko atreak •
- Horma armairuak • Tarimak •
- Egurrezko eta PVCzko leihoak •
- Era guztietako arotz lanak •

Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

# ELEKTRO

ARENAZA C.B.

**Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.**

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43





**LOS ULTIMOS DIAS DEL EDEN**

Ostirala: 22.30.  
Larunbata: 17.00., 19.30. eta 22.30.  
Igandea: 17.00., 19.30 eta 22.15.  
Astelehena: 19.30.




**RIFF-RAFF**  
Osteguna: 19.30.



**Zinea**

▼▼ **John Mc Tiernanek** (*A la caza del Octubre Rojo*) zuzenduta, ohianeko bakardadean gaixotasun larri baten erremedioa aurkitzeko lanean ari den mediku baten (**Sean Connery**) istorioa kontatzen zaigu. *Campbell* doktoreak emakume baten laguntza (**Lorraine Bracco**) jasoko du bere eginkizuna aurrera eramateko.


▼▼ **Ken Loach** zuzendari britaniarrak sekulako arrakasta lortu zuen lan munduko egoera modu trajikomiko batez azaltzen duen filme honekin. Profesionalak ez diren aktorekin errodututa, besteak beste, *Felix* europear filme onenaren saria lortu zuen.



**Erakusketak**

▼ **Juan Balentziagak** azken urteotan landutako margoak, eskulturak eta zeramika lanak ikusgai izango ditugu Kultur Etxean astelehenera arte, azaroak 23.

▼ **Juan Antonio Unzurrunzagaren** argazki erakusketa Elerioko Kultur Etxean. Azaroaren amaierara arte.



**Farmaziak**

- ▼ **Larunbata 21:** Puy/Amezua (Arrasaten gauz)
- ▼ **Igandea 22:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Astelehena 23:** Camacho/Morales.
- ▼ **Asteartea 24:** Estella/Azkoaga.
- ▼ **Asteazkena 25:** Mozos/Español.
- ▼ **Osteguna 26:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Ostirala 27:** Puy/Amezua.



Udal Bandak kontzertua eskeiniko du igandean.



**Ogia**

▼ **Igandea 22:** Mizpildi.

**ZUBIETA**

**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

**MAKAILO**

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15



## Ikuskizunak

▼ **Udal Musika Bandaren** kontzertua igandean, hilak 22, Novedades aretoan eguerdiko 12etan.

▼ **Baldin Bada eta Heriotza** ostiralean, hilak 20, Institutuan gaueko 10 terdian.

▼ **Zakarrak** taldearen kontzertua larunbatean, hilak 28, Gaztetxean gaueko 11etan.

## Kirolak

### ▼ Futbola:

• **Bergara-Urki** (lehen mailako infantilak). **Larunbatean** 8.45etan Ipintzan.

• **Bergara-Segura** (2. mailako errejionala). Ipintzan, **larunbatean** 15.30etan.

• **Bergara-Almen** (2. mailako kadeteak). **Igandean** 12etan.

• **Bergara-Ordizia** (lehen mailako kadeteak), **igandean** 15.30etan.

### ▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Ormaiztegi** (gazte mutilak). **Larunbatean** 16.00retan Kiroldegian.

• **Bergara-Leizaran** (kadete

## Aukeran

▼▼ **Everest** munduko gailurrik altuena zapaldu duten Iosu Bereziartua, Alberto eta Felix Inurrategi eta Jose Ramon Zubizarretaren diapositiba emanaldia eta hitzaldia iragarri du JARDUN Elkarteko Kultur Taldeak asteazkenerako, azaroak 25, Bergarako UNEDeko aretoan arratsaldeko 7etan.



neskak). **Larunbatean** 17.00etan.

### ▼ Saskibaloia:

• **Ibili Bergara-Argal** (senior gizonak), **larunbatean** 18.30etan Kiroldegian.


• **Bergara-San Benito** (gazte mutilak), **igandean** 12.15etan.

• **Bar Etxenagusia-Sasoeta** (gazte neskek), **igandean** 12.15etan.

### ▼ Futbitoa:

• **Futbito Txapelketa** asteburakera Kiroldegian.

**5**




### PROFESIONALAK

• Telletxea eta Retegi IV.a Gofii eta Aldazbal II.aren aurka.

• Etxaniz eta Zezeaga/Eugi eta Errasti.

• Gabilondo eta Alberdi III.a/ Badiola eta Buene-txea.

**Larunbatean,**  
16.30etan Udal  
Pilotalekuan.



**GAZTELU**  
**Burdinaki denda**

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

**EZPELETA**  
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



### Gorlako igoera

Azkenengo Gorlara Igoeran sortu-tako gorabeheren ondorioz, eta Berrigarako azken zenbakian argitaratutako adierazpenak irakurri ondoren, uste dut zenbait gauza argitu beharra daukadala, guztion eta bergarako motor lasterketen onerako.

Adierazpenean aipatzen diren puntu nagusiak hauek dira nere ustez:

- Epaileren eta federazioaren joera, nire "ustezko" irteera oker baten aurrean.

- Irteera hau inpugnatzeko orduan egon ziren arazoak.

Lehenengo puntua azertzen badugu, bertan zeuden epailerak, esan beharra dago, "motorzale guztiok onartutako" aginpide moduan zeudela an, beraien erabaki zezaten gertatzen zen edozein arazori buruz, beraz noski, ezadostasunik balego, beti dago erreklamatzeko aukera bat.

Bestalde irteeran epailerez aparte beste jende asko zegoen, eta entzuna dudanez nire irteera okerra izan zenik ez zen komentatu, arazo guztia behinbetiko denborak jakin zirenean hasi zen eta batez ere, Elizburu jaunaren eta nirearen artean zegoen denboraren arteko diferentzia oso txikia zela ikusi zenean.

Bestalde, esan beharra daukat, "nire ustezko aurrerapen" hori ikusi zutenok, Elizburu jaunaren lagunak zirela eta

beraz, beraien ikuspegia partziala dela iruditzen zait. Gainera, irteeran zegoen gehiengoak ez zuen beraien esandakoa ikusi eta hau bat dator epaileren eritzia-rekin. Epaileren jokaera guztiz zuzena izan zela esango nuke.

Esaten dutenez, nire aurrerapena segundu erdikoa izan zen, hori gehiegi iruditzen zait epailerak eta ikusleagoak ez ikusteko. Agian egon daiteke dezima edo segunduko zentesima baten aurrerapena, baina denbora txiki hori bai Elizburu jaunak eta bai nik eduki genezake.

Bigarren puntuari buruz gertatu zena argitzeko, federaziora jo dut, eta esan didate ez ziotela esan Elizburu jaunari erreklamazioa Donostiara bidali behar zuenik, baizik eta idatziz aurkeztu behar zuela antxe bertan. Hori horrela egin ez bazuen, berak jakingo du zergatik. Elizburu jaunak adierazi duen erreglamentuaren ezagupen hori bere errua dela esango nuke, bere eginbeharra kirolaren erregelak ezagutzea baita.

Nere ustez, gauza hauek "tikimikiak" besterik ez dira, eta uste dut alde batera utzi behar direla. Bergarako motorzaleei eskatu nieke gauza hauek alde batera bota eta orain arte bezala kirol hau laguntzen jarraitu dezatela.

Angel Bideluze

### Bergarako Udalarri

Enpresa Komiteak, azken hila-beteetan udal honetan somatu dituen hainbat irregulartasun salatu nahi ditu idazki honen bidez.

Salatzen dugu:

- Obretako arduradunak, Alkateari zuzenean aurkeztutako pertsonak, alkatearen dekretu bidez kontratatu izanak.

- Obretako arduradunak, bere aginpidea erabiliz, familiakideak kontratatzen dituztela herriko langabetuentzat erreserbatutako lanak egiteko, kulturako arduradun eta udalaren onarpenaz.

- Langileak hautatzeko epaimahaitan, hainbat aholkulari-tekniko eta politikoen jokaera partzialak salatu behar dugu.

- Epai mahai kalifikatzaileetan, gogoko kontratazioak egiteko elkarriketa pertsonalak nahi den erara erabiltzen dituztela politikoei.

- Enpresa Komitea jakinean jarri gabe, Alkatezaren dekretu baten bidez kontratatu den gizarte ongizaterako teknikari baten kasua.

Udaleko Enpresa Komitea

### Tiira ba!



### Josu Okina



## □ JARDUN

JARDUN Elkarteak dei egiten die bere bazkideei datorren larunbatean, hilak 28, goizeko 10etan Mariaren Lagundia ikastolako geletan egingo den lan-saioan parte hartzeko. Ez da batzar orokorra izango; JARDUNen oraingo egoera aztertu eta hori indartzeko bideak aztertu asmoz, honako gai hauek tratatuko dira: Momentuko egoera, antolaketa proposamena, lantalde bakoitzaren irterako programaketa eta aurrekontuak, lantalde bakoitzaren azalpena, batzar orokorraren prestaketa eta, azkenik, balorazio orokorra.

## Udaletxeko pinturak berrizteari ekin dio berritzaile talde batek

Bergarako Udaletxean datozen bi urteotan burutuko diren berritze lanen barne, Udalak Fernando Diaz Peral berritzaileari adjudikatu dio 18.347.100 pta.tan Udaletxeko margo eta elementu baliiodunen berreskuraketa. Lanak orain astebete jarri ziren martxan.

Besteak beste, Simon Arrietak (1.915-1.969) San Martinen omenez margotu eta sarrerako eskilaran dagoen pintura, Udaletxeko pleno aretoan dagoena (ezezaguna eta herriko harmarria, lau herrialdetakoak eta herriko hainbat pertsonaia ospetsuren erretratuak biltzen dituena) eta Batzordeetako Gelan dagoen beste bat berriztuko dira, azken hau ere Simon Arrietak egindakoa.

Xabier Aranburu udal



museologoaren esanetan, *"Simon Arrietaren margo hauek ez dira berak margotatutako onenak baina dudarik ez balore sinboliko haundia dute Bergara herria eta bertako biztanleentzat, azken finean herri honek eman duen pintorerik ezagunenak egindakoak baitira".*

Pleno aretoko tetxu-

koak orain 6 urte berriztu baziren ere, margo hauen egoera nahiko txarra da momentuan eta Eudual Gillamet katalandar berritzaile ospetsuak zuzenduko ditu lanak datozen asteotan. Teknika berrienak erabiliz, pintura hauek hezetasunaren erruz jasaten duten kaltea murriztu eta margoak berreskuratzeko asmoz.

## Hitzarmena sinatu

Asteazken goizean Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak eta Gregorio Monreal Eusko Ikaskuntza Elkarteak presidentek Seminarioko Zientzia kolekzioko 200 bat aparailu berriztu eta katalogatzeko hitzarmena sinatu zuten Kultur Etxean. Biak bat etorri ziren 16 hilabeteko iraupena eta 3 milioi pta. inguruko aurrekontua izango duen kolaborazio honen garrantzia azpimarratzerakoan. Aste honetan bertan martxan jarri den proiektu honetan, besteak beste, Jesus Ugalde eta Jose Mari Elorza bergarrek hartuko dute parte.



# MEMESA

# IRIMO

# SKF

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta




□ **59ko kintoak**

1.938. urtean jaiotako gizon eta emakumeek beren anaiarteko eguna ospatuko dute larunbatean, hilak 21. Arratsaldeko 7 terdietan meza izango da Trinidadetan eta 9etan afaria Antxonin Jatetxean. Izena emateko interesatuek 76 35 17 (Mari Karmen Leturia) edota 76 23 28 (Jabier Garzia) telefono zenbakietara jo dezakete. Izena lehen bait lehen emateko eskatzen da.

□ **Eguzki**

Eguzki talde ekolojistak Bergarako Udalari Urkulu urtegiko uren fluoreztatzeari buruzko informazioa kaleratzeko eskaria egin dio. Eguzkik neurri honen aurkako postura foro publiko guztietan azaldu du azken hilabeteotan eta hainbat informazio argitaratu du gai horren inguruan.



**HIESaren astea**

Arrasateko *HIES Eki-mena* kolektiboak antolatuta, datorren astelehenetik igandera bitartean HIESari buruzko astea ospatuko da Bergaran. Jendeak gaixotasunarenganako kontzientzia har dezan, hainbat ekitaldi iragarri dira.

Horrela, astelehenean, hilak 23, *VIH/IHESaren aspektu nagusiak* izenburuko hitzaldia izango da 7etan Kultur Etxean; asteartean toki eta ordu berean *HIESa eta sexualitatea* izango da aztergai; asteazkenean, *HIESa eta Hezkuntza* eta ostegunean, hilak 26, *HIESaren*

*oraina eta geroa Euskadin*. Horrez gain, astelehenetik igandera arte HIESarekin zerikusia duten pegatina edota kartel erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean eta larunbatean, gaueko 11etan, Zakarrak taldearen kontzertua izango da Gaztetxean. Igandean mahai-informatibo bat jarriko da Plazan.

Kolektibo honekin kolaboratu nahi dutenek 79 26 99 telefono zenbakira deitu dezakete. Taldearen finantzaketan laguntzeko Kutxan eta Lankide Aurrezkian kontu korronteak ireki dira.

□ **Jugoslavia**

Gurutze Gorriak Jugoslavia ohiko kaltetuentzat eta larrialdi egoeratarako laguntza kanpaina antolatu du. Dirulaguntzak emateko prest daudenek *Kutxako* kontu korrontearen zenbaki honetara jo dezakete: 1019990.0 k/kta.

□ **1.944.ekoak**

1.944. urtean jaiotako gizon eta emakume bergararrek azaroaren 28an anaiarteko eguna ospatuko dute, gaueko 9etan Antxonin egingo duten afariarekin. Izena emateko interesa dutenek, Mujika ferretereria (76 28 67), Sanchez ileapaindegia (76 23 70), Zer-Nai taberna (76 18 08) edota Antxonin Jatexera (76 20 40) jo dezakete. Antolatzaileek izenematea berehala egiteko eskatzen dute.

**FERNANDEZ**



**Oihal puskak  
Oihalak**

San Antonio 3      Ibargarai 2  
Tfnoa: 76 22 93      Tfnoa: 76 53 22

**GURIDI** Altzariak

**Era guztietako  
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**EGUREN  
GESTORIA**

*Maria Pilar Eguren Diez*  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**SUBIJATI**

**Gazteentzako moda**

Irizar, 1      ☎ 76 42 41

**ITXASMENDI  
Taberna**

**Donostiako errekadista**

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
**BERGARA**

**Kiroldegiko  
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41





## Eskaparate lehiaketa

Udaleko Kultura Zerbitzuak herriko merkatal etxe eta denda guztiei zuzendutako II. Eskaparate Lehiaketa konbokatzen du.

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea idatziz egin beharko da Kultur Etxean azaroaren 30a baino lehen, eskaparateak abenduaren 7rako prestatu beharko dira eta erakustaldiak abenduaren 20ra arte iraungo du.

Parte hartzen duten dendetan saldu ohi diren artikuluak egon beharko dira ikusgai eskaparateetan eta, sariak emateko orduan, imajinazioa, ori-

jinaltasuna, iragarpenaren eraginkortasuna eta kalitatea hartuko dira kontutan.

Epaimahaia Kultura Taldea, Jai eta Gazteria Batzordeko kideak eta batzorde honek horretarako izendatuko dituen besteren batzuk osatuko dute eta hiru sari emango dira: 100.000 pta.koa lehena, 50.000 pta.koa bigarrena eta hirugarrenak, berriz, 25.000 pta. jasoko ditu.

Epaimahaiak erabakia abenduaren 24ean eman go du jakitera eta sariren bat eman gabe uzteko eskubidea ere edukiko du.

# Txinpartak

✓ **LAMek** antolatuta, azaroaren 21ean Gaztetxean (binaka) eta hilaren 26an Pol-Polen (banaka) futbolin txapelketak jokatuko dira.


✓ **Jubilatueta**n abenduaren 1ean Lizarrako San Andres feriara joateko eskursioa antolatu da.

✓ **Ikasleen Nazioarteko Eguna** "ospatu zuten gure herriko ikasleek asteartean, hilak 17. Ikaste-txe ezberdinetan hainbat ekitaldi antolatu ziren.

✓ **La Misión** pelikularen soinua eskeiniko dute Bergarako Orfeoak eta Orkestra Sinfonikoak ostiralean, hilak 20, gaueko 10etan Andoaingo San Martin elizan. Bertako abesbatzak ere hartuko du parte.

✓ **Pol-Pol M.T.k** dei egiten die urteko kuota ordaindu ez duten bazkideei lehen bait lehen bulegotik pasatzeko. Ordaintzen ez duenari baja emango zaiela iragartzen du.

✓ **Santa Cecilia** eguna ospatuko dute Musika Eskolako ikasleek ostiralean, hilak 20. Arratsaldeko 5.15etan Gazteen Bandak kalejira burutuko da eta ondoren meriendatxo bat iragarri da eskolako gaztetxoentzat.



### POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

### DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

## Pepelu

### Ileapaindegia.

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

## EXLUKUN

### BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA




# Soldadutza: guztion artean konpondu beharreko arazoa

Aste honetan izan dira soldadutzara joateko zozketak. Soldadutzara joango dira batzuk, baina Hego Euskal Herrian gehiengoak, % 60ak, objetatzea erabaki du. Soldadutzaren aurrean jarrera ezberdinak daudela argi dago eta jarrera ezberdin hauek argitzeko hiru gaztekin elkarrizketa izan genuen.



**Gaia aztertze-ko bildu ditugun hiru gazteei galdera berak egin dizkiegu:**



**Ioseba Otaño  
24 urte, ikaslea  
(Ordezko Zerbitzu  
Soziala betetzen)**

**1- Zergatik zuen aukera?**

**2- Zein da zuen egoera?**

**3- Bizi zareten inguruak izan aldu eraginik zuen erabakian?**

1- Ni ikasten nengibilen eta argi nuen ezin nintzela soldadutzara joan, ar-

men aurka eta soldadutzaren aurka nengoelako, orduan bi aukera nituen: Intsumiso egitea edo objetore sartzea. Azkenean erabaki nuen ordezko zerbitzu soziala egitea. Nik nere burua intsumisotzat daukadan arren, ez naiz intsumiso sartu, legez kanpo egoteak beldurra ematen zidalako eta lana topatzeko intsumiso izateak dakartzan oztopoengatik.

2- Bueno ni Gurutze Gorrian ordezko zerbitzu soziala egiten ari naiz, Gurutze Gorrira joan nintzen eta han bi aukera

utzi zidaten: beraiek jarraitako ordutegia onartzea edo nik aukeratutako ordutegia jarraitzea derrihorrezkoak diren 30 orduak betetzeko. Orain goizez ari naiz Gurutze Gorrian ordubietatik zazpirak arte. Ni erizain moduan nabil eta inguruan ematen diren larraldi guztietara joan behar dut. Erizain moduan aritzeak ez dakit, niretzat gizartearentzat zerbait egiten ari naizela uste dut.

3- Bueno, argi daukat bizi naizen inguruak izan duela eraginik hartutako erabakian, agian beste

# ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA


Artekale, 15  
behea.  
BERGARA  
☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK



toki batean biziko banintz ez nuke izango hain argi zer den objektioa edo ordezeko zerbitzu soziala.



**Luis Iturrikastillo**  
23 urte, ikaslea  
(Soldadutza egina)

1- Nik hasera batean objetatu egin nuen, baina paperak egin ondoren ez zitzaidan ezer heldu, heldu zitzaidan gauza bakarra soldadutzara joateko agindua izan zen. Nik ez neukan argi joan ala ez, baina soldaduzka egin nuenean, 1987an, oraindik gauzak ez zeuden oso argi. Ni soldadutzaren aurka nengoen, guztiok behartuta joan ginen, saiatzen ginen ahalik eta gauza gutxien egiten. Momentu haietan 18 urte nituen eta honek ere bere garrantzia izan zuela uste dut.

2- Bueno nik soldadutza Jacan egin nuen eta lehenengo hilabeteetan osasun arazoengatik libratzeko itxaropena nuen, baina han haseratik egurra eman ziguten. Jaca

oso toki hotza da eta militarrek egin arazten zizkiguten "ariketa militarrekin" asko sufritu genuen. Gogoratzen dut lehen hilabeteetan mendira irtetzen ginela, sekulako hotza egiten zuen eta han geunden denok lokatzeetan etzanda ariketa fisikoak egiten, gero arin arin aldatu, bustita egotzen txandala jantzi eta berriz tontoarena egitera... oso gogorra izan zen. Ni soldadutza egiteaz damutzen naiz, lagun onak egin nituen arren urte bat galdu nuen.

3- Bueno, ni duela bost urte joan nintzen eta momentu haietan objektioari buruzko informazioa bazegoen arren, ez zeukan orain duen garrantzia.



**Jesus Mari Kalboetxeaga**  
27 urte, kazetaria  
(Intsumisioa)

1- Niri soldadutzara joateko momentua heldu zitzaidan eta nire burua ez nuen disziplina milita-



*Intsumisioak gero eta jarraitzaile gehiago ditu.*

rraren barruan ikusten, are eta gehiago, soldadutzaren aurka nengoen eta bi aukera nituen: Objektioa edo intsumisioa egitea. Intsumisioa egitea erabaki nuen ordezeko zerbitzu sozialaren aurka nagoelako. Ordezeko zerbitzu soziala egiteak disziplina militarren menpe egotea suposatzen du, lanpostuak kentzen dituzu eta denbora eta diru galtzea da. Gainera nik Estatuari ez dizkiot nire zerbitzuak debalde eman nahi, intsumisioa niretzat soldadutzaren aurkako borrokan sartzen da.

2- Bueno, ni beste intsumisio askoren moduan nago, hasera batean jurisdizio militarren menpe nengoen eta gero

jurisdizio zibilera pasa ninduten, gero epaitegira joan eta fiskalak urtebete eta sei hilabetezko kartzela eskatu zidan eta orain epaiketaren zain nago.

Egoera oso ona izan ez arren nik bizitza normala egiten dut, lana topatzeko baditut arazoak, baina badaude lanean ari diren intsumisioak.

3- Nire ustez Euskadin behintzat jende guztia dago soldadutzaren aurka, aurten %60ak objetatu egin du, honek argi uzten du oraingo zerbitzu militar behartuak ez duela ezertarako balio eta noizbait bukatu beharko dela egoera hau.

**Corpa**  
**Bazarra**

JOSE CORRIUS

Jostailu  
sorta  
bikaina!!

Barrenkale, 13 BERGARA  
☎ 76 19 80

**PRiMi**

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90  
San Antonion Tfnoa: 76 21 08  
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



# Yugoslavia zeneko errefuxiatuen aldeko batzordea eratu da Antzuolan

Antzuolan sortu berri den *Antzuolatik Elkartasuna Yugoslavia Ohiari* taldeak 20-25 errefuxiatuko talde bat hartzeko proposamena aurkeztu dio CEARi (Comité Estatal de Ayuda al refugiado), estatu osoan errefuxiatuak jasotzeko (printzipioz 1.500) martxan jarri den kanpainaren barne.

## Loteria salgai

Joan den astean egindako bileran 200 lagun inguru bildu ziren Antzuolan eskabide honen posibilitateak aztertzeko eta jasotako erantzunak guztiz animatu zuen Zuzendaritza Batzordea aurrera egiteko. Dagoeneko jo dute herriko alderdi politiko, elkarte gastronomiko, sindikatu, Caritas, DYA eta herritarrengana eta erantzuna ezinhobeia izan da: 71 pertsona agertu dira lan egiteko prest eta jendeak, buzoi-etan utzitako kuestionarioaren arabera, hilero 400.000 pta. ko dirulaguntza emango luke.

Batzordeak, bere aldetik, Gurasoen Elkarte-ko lokala erabiltzeko aukera izango luke errefuxiatuak Antzuolara etorriko balira (printzipioz 6



Joan den asteko bileran Yugoslabian egondako bi boluntariok hartu zuten parte.

hilabetetarako etorriko lirateke) eta, 791.000 pta. ingurutan finkatu ditu hilero-ko gastu posibleak. Aurrekontu hau betetzeko, Batzordeak Gabonetako loteria saltzeari ekin dio (600.000 pta. lortzeko bidea dago) eta gainontzekoa inizatiba pribatu edota antolatu daitezkeen beste ekintza batzuetatik (jaialdiak, *korrika* antzeko bat..., etab.) osatuko litzateke.

## 25 errefuxiatu

Batzordeak, CEAREN baitetza jaso ahal izan izateko, Antzuolako Udala-

ren babesera ere behar du eta zentzu horretan, orain arteko lana ona izan bada, batzordeak Udalak "pau-so hori emateko eskatzen du, berandu izan baino lehen, CEARrek nahiago baititu instituzioen babesean lan egiten duten taldeak". CEAREN erantzun positiboa jasotzekotan, esan bezala 25 errefuxiatu jasoko lituzke Antzuolak eta Batzordeko ordezkariak esaten duten bezala, "hasieran gure ideia umeak bakarrik hartzea bazen, Bosniako agintariek ezinbestekotzat jo dute umeak beren guraso edota familiare-

koekin etortzea eta beraz, % 60a umeak eta beste % 40a nagusiak izango lirateke".

Antzuolako batzordeak ere dei egiten die ekintza honetan kolaboratu nahi duten bergararrei Antzuolako Udaleko asistente sozialarengana joteko, beren esanetan, "pena merezi duen lana baita. Negua gogorra izango dela antzematen da eta, gerra lehen bait lehen amaitzeko itxaropenaz, jasanenezko egoera horri nola edo hala aurre egin beharra dago".

**K**abia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE


Tximak

Ileapaindegia

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69



1.992



BERRIGARA



SARIAK

**UDAL KIROL ZERBITZUAK eta BERRIGARAK, iazko moduan aurten ere, Bergaran gehien nabarmendu diren taldeak saritu nahi dituzte «II. BERGARA KIROL SARIAK» aukeraketaren bitartez. Horretarako, hiru astetan zehar Bergarako kirol taldeek proposatutako kirolariak aurkeztuko dizkizuegu Berrigaran. Kirolariak aurkeztu eta beste bi astetan, txartelak banatuko ditugu, zuek irakurleok 92an Bergaran kirol munduan nabarmendu direnak aukera ditzazuen. Jasotako botuen artean, bi sari eder zozketatuko dira. Beraz, badakizue, zenbat eta botu gehiago bidali, aukera haundiagoa izango duzue. Animo!!**



## LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

- **PRESIDENTEA:** Jesus Kortabarría "Kaxeta".
- **SORRERA:** 1.975.
- **FEDERATU KOPURUA:** 42.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Euskal Bizikletaren 2. etaparen helmuga eta 3.aren irteera.
- **EMAITZARIK AZPIMARRAGARRIENAK:** Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa Ibilbildean fondoko proban.

### KIROLARIRIK ONENA

Josu Otaegi



18 urte ditu eta 1.989-tik Lokatza.

Aurten, froga bat irabazi eta beste hamazazpitan hamar lehenengoen artean sailkatu da. Mendiko saria ere irabazi du bost karreratan.

Denboraldi amiera oso indartsua izan du.

### ETORKIZUNIK ONENEOA

Aitor Soraluze

16 urte, orain dela lau urte sartu zen taldean.

Gazte mailako Gipuzkoako Txapeldun dugu.

Aurten bi probatan bigarren postua lortu du eta parte hartu duen gainontzeko frogetan 12 lehenengoen artean sailkatu da beti.



## BERGARA IGERI ELKARTEA

- **PRESIDENTEA:** Jose M. de Borja Alberdi.
- **SORRERA:** 1.971.
- **FEDERATU KOPURUA:** 27.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Gipuzkoako Absolutu eta Adinetako Neguko Igeriketa Txapelketa.
- **EMAITZARIK AZPIMARRAGARRIENAK:** Gipuzkoako Absolutu eta Neguko Txapelketan 2. postuak.

### KIROLARIRIK ONENA

Iñigo Gallastegi

20 urte ditu eta 8 zituenean ekin zen taldean. Euskadiko eta Gipuzkoako Txapelketetan lehen eta bigarren postuak askotan lortu izan ditu. Frantziako Tarbeseko Meetengan 1. eta 2. postuak lortu ditu 50 eta 100 metro bizkarrerako probetan.



### ETORKIZUNIK ONENEOA

Gorka Gozalez



15 urte ditu eta 10 urtetik taldean.

15 urtekoetan Gipuzkoako igerilari onena izan da aurten eta Albaceten jokaturako Espainiako Promozio Txapelduna 100 m bularrezko frogan izateaz gain, Txapelketako marka egin zuen.

## OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK • O

### 1 HELBURUA:

Helburua, Bergarako kirol talde eta kirolari guztien urteroko lana aitortzea da. Zuek, irakurleok, daukazue azken hitza: zuen botuek erabakiko dute kirol taldeek proposatutakoen artean, zeintzuk izan diren 1.992an Bergarako kirolaririk onenak, nortzuk nabarmendu diren gehien.

### 2 SAILAK:

- Kirolaririk onena
- Etorkizunik onenekoa.
- Talderik onena.
- Goi mailako kirolaririk onena.
- Batzordearen saria. Lehenengo laurak irakurleen botuek aukeratuko dituzte. Batzordeak, berriz, Bergaran kirol munduan

nabarmendu denari (direktibo, entrenadore...) sari berezi bat emango dio.

### 3 BATZORDEA:

Honako hauek osatuko dute: Andoni Larrañaga (Kirol Batzordeko Zinegotzia), ordezkari bat klub bakoitzeko, Begoña Payas (Eskola Kiroleko teknikaria) eta Iñaki



## ARIZNOA ELKARTEA

- **ARDURADUNA:** Izaskun Agirregabiria.
- **SORRERA:** 1.979.
- **FEDERATU KOPURUA:** 70.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Euskadiko Kopa, Gipuzkoako Txapelketa eta Pentekoste Saria.
- **EMAITZARIK AZPIMARRAGARRIENAK:** 3. eta 4. postuak Gipuzkoako Txapelketan.

## POL-POLEKO SKI SAILA

- **PRESIDENTEA:** Andoni Larrañaga.
- **SORRERA:** 1.942.
- **FEDERATU KOPURUA:** 387.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Ski denboraldiaren hasierarekin, Piriniotara irteerak antolatzen dituzte.

### KIROLARIRIK ONENA

Ana Sebal

### ETORKIZUNIK ONENEOA

Ana Sebal



12 urteko neskatosa aurkeztu du Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeak kirolari onena eta etorkizunik oneneko kirolari.


5 urteko neskatilatxoa zela hasi zen taldean eta harrezkero hainbat txapelketatan nabarmendu da. Aurten, esate baterako, Gipuzkoako txapelketan 3. postua lortu du.

### KIROLARIRIK ONENA

Mikel Askargorta

### ETORKIZUNIK ONENEOA

Maite Agirrebeña



13 urte ditu eta 5 urte zituenean hasi zen skia praktikatzeko.

Iaz Euskadiko txapelduna izan genuen, alebin mailan, Candanchun jokaturako neurketan eta aurten Euskadiko Taldearekin hainbat probatan parte hartu du.

9 urteko neskatilak bere anai Ionen bide berea jarraitu asmoz, gogor ekin dio elur gainean irristatzeari.

Orain dela hiru urte praktikatzen du skia eta aurten 10. postua lortu zuen Espainiako Txapelketan.



## AK • OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK

Ugarteburu (Udal Kirol Zerbitzuko teknikaria).

### 4 BOTOAK:

Berrigarak 3 astetan jarraian kirol taldeek proposaturako kirolariak aurkeztuko ditu eta azkenengo astean eta beste batean, botoak emateko txartelak argitaratuko ditu. Nahi beste boto bidali ahal

izango dituzue abenduaren 15a baino lehen.

Boto emaleen artean bi pertsonarentzako asteburu baterako bidaia eta Udal Kirol Zerbitzuko bi karnet zozketatuko dira.

### 5 SARIAK:

- 25.000 pzta. kirol materialean kirolari onenari.
- 25.000 pzta. kirol

materialean etorkizunik oneneko kirolariari.

- 50.000 pzta. kirol materialean kirol talde onenari.
- Sari berezia goi mailako kirolari onenari.
- Batzordeak emandako saria.

a, b, eta d sailetan finalista izan direnen artean Parisera bi pertsonarentzako astebukaera baterako bidaia zozketatuko da.





**Kiroletarako era  
guztietako  
materialak**

**eski, mendi, txirrindularitza,  
gimnasia... materialak.**

# BOLINTXO

*Kirolak*

Ibargarai, 10 BERGARA  
☎ 76 38 32



**txamarrak, txandalak, zapatilak.**

**ehiza eta arrantzarako  
gaiak.**





# BORDATXO

## Baserritarren elkarte

Baserritarren elkarte den honen sorrerari buruz galdetzean, honako azalpen hau eman zigten: "orain dela 26 urte, baserritarrek ez zuten kalean lokalik batzarrak egiteko, eta udaletxera, elementalera... joan behar izaten ginen elkartzeko lokal eske. Honela hasi zen elkarte bat sortzeko asmoa. Jateko baino elkartzeko zen, hitzaldiak egin, kooperatibak elkartu... Orduan baserria kili-kolo zegoen".

Orduko elkarte haren egoitza Irizar kaleko 2-lean zegoen. Baina ondoko etxeekin zarata zela eta arazoak zeuden, eta insonorizatzeko obrak egitera behartuta egon ziren. Konponketa hauek diru asko suposatzen zutenenez, elkarte saldu eta berria egitea erabaki zen.

Elkarte berria zabaltean, bazkide berri ugari batu zen elkartera, gaur egun 35 bazkide kuota-

dun eta 5 jubilatutaz iritsi direlarik. Bazkide guzti hauek baserriko semeak dira, bat ezik. Beraien batzbesteko adina 50 urtetakoa da.

Lehen, elkartearen eguna San Isidro egunean ospatzen zen, Santa Marina elizatik etorritako obispo eta guzti, baina orain, San Isidro eguna lan eguna denez, ezinezkoa egiten zaie ospatzea.

Nahiz eta beraiek egunik ospatzen ez duten, prest egoten dira herri mailan gertatzen diren ospakizunetan laguntasuna emateko, Erramu larunbat eguneko bazkaria, haurren eguna, edota koralak datozenean.



Bordatxok 35 bazkide ditu.

Diru kontutan sartuta, azken urtean 2.500.000 pta. jaso dute gutxi gorabehera, urtero mantentzen delarik kontsumoa. Bordatxo elkarteak falta %1koa da.

Elkarte honetan ez da normalean bezala aukatzen lehendakaria. Hemen taldeak daude osa-

tuta, eta txandaka-txandaka doaz junta lana bertetzen. Talde bateko edozein izango da lehendakaria. Sortu zeneko batzarrak, hitzaldiak eta abar alde batera utzi eta gaur egun beste elkarte guztiak bezala jan-edererako aritzen da Bordatxo elkartearen. Honela, Elusuar batzuk omen dira elkarte honetako adituak sukaldean, besteak beste. Eta azaldu zuten bezala, ez omen dago errezeta berezirik, denetik jaten bait dute, eta asko gainera.

Ainboa Lete

### FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1.966.eko San Isidro eguna.

**BAZKIDEAK:** 35.

**HELBIDEA:** Kruz Gallastegi kalea.

**PRESIDENTEA:** Jesus Mateo Atorrasagasti.

**ELKARTEAREN EGUNA:** San Isidro.

**URTEKO KUOTA:** 12.000 pza.

**ARRANO**

**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**MUGICA**  
Goxotegia

pastelak,  
errellenoak,  
tostoiak,  
tartak...

**anezka**

Udazkenerako oihalak  
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

• Fotokopiak koloretan  
• Publizitadedun kamisetak  
• Oihal inprimaketak

**AKORT**

San Lorenzo, 7  
behea. Tel. 76 50 39



**KORTA-ZAR**  
Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoan  
espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62




# FSistema

## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

## TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## Gehiago lagundu beharko genieke herrialde behartsuei?



**Milagros Zabala**  
50 urte, etxeoandrea

Nik uste dut ahal den guztia egin behar dela euren alde. Danon artean puxka bat.



**Manu Aranburu**  
37 urte, langilea

Laguntzak gehitu behar dira bai. Gainera hemen tokatu leike holako bat eta erak guri laguntzea.



**Iñaki Aginagalde**  
29 urte, langilea

Laguntza interesatu asko dagoela uste dut eta beste motatako laguntzak indartu beharko lirateke.



**Ainhoa Amorrosta**  
22 urte, etxeoandrea

Hemen ere laguntza falta dago; langabezia, etab. Laguntza eman bai baina hemengo ahaztu gabe.



## EVEREST 92

Hitzaldia eta diapositiba emanaldia

**IOSU BEREZIARTUA  
ALBERTO ETA FELIX IÑURRATEGI  
J. R. ZUBIZARRETA**

**Azaroaren 25ean,  
asteazkena,  
arratsaldeko 7etan  
UNEDeko aretoan.**

JARDUN  
Elkartea





**Barne  
barnetik:  
intsumisioa!**


Benetan asaldatzen zara soldaduska egiteko uea iristen zaizunean. Ez duzu beste ezertan pentsatzen. Alde batetik, ia esan beharrik ere ez dago, zerbitzu militarren balore nazkagarri guztiak gorrotatzen dituzu eta argi daukazu ez duzula joan nahi: baina bestekaldetik, legearen kontrako zerbait egiteagatik nozitu dezakezun errepresioak, beldurra sartzen dizu gorputzean. barnean, ZALANTZA pizten zaizu sentimendu kontrajarri guzti hauek artean.

Objektuaren bidea hautatu ezker, eman beharreko hurrengo pausoa oso gauza erreza da eta, azken finean, KARTATXO BAT bidaltzera mugatzen da dena (Udaletxera militarrek igortzen dizuten dokumentazioa berriro bueltatzen diezu). Dagoeneko intsumisio zara eta ez duzu inoiz soldaduska egin beharrik izango.

Tamalez, auzi honetan gobernuak hartzen duen joka bidea erabat negatiboa da, nahiz eta jakin gizartearen gehiengo nagusiak soldaduskaren abolizioa eskatzen duela. Gobernuaren errepresio selektiboaren aurrean, hona hemen intsumisioen erantzuna: DENOK ALA INOR EZ!

Argi dago gizakia artaldeko animalia dela baina norberak bere buruaren arabera aukeratzeko eskubide osoa du, eta esaera zahar batek dioen bezala: ARTZAIA OTSO DENEAN... INTSUMISIOA!

**Alex Larrañaga**



**Elosura  
bidekoak**

Azken 30 urte honetan "Tourmalet"ean gorako bidexidorrak albora laga, eta Ugarrixan etapa eginaz, lautua ez baina ederki leundua daukagu Elosu-Gorlarako bidea.

Elosurako kamino bihurriak bentaja ederrak ditu paseantearantzat, baserritar nahiz lanera joan beharrendaren eguneroko prisapean bizi denarantzat.

Eta bentaja kontrakarra baino haundiagoa, era berean, Gorlako igoera klase guztien antolatzaileendako ere. Hainbestean, hor izaten ditugu batekoan txirindulariak, zein hurrengoan autozaleak.

Ekitaldi horiek direnean, bidea eten egin ohi da, ibilgailu arrententzat, buruhauste bat baino gehiago eragiten zaiolarik kamino inguruetakoz bizilaguneriari.

Eta kaminoaren etete kontuok egunez baino ez direnean, gaitzerdi; baina auto karrerazaleek gauez ere entrenatu baharra izaten dutenean, kasurako, orduan ez da giro izaten bide inguruetan.

Diputazioak mesede ederra egin dio kaminoari eman dion asfalto txukunaldia aldenik alde zabaldua. Orain dotore dago, bada; apaina eta atsegina ere bai. Ai, baina, Etxenagusi baserri ederra izandakoan, han non dagoen eskonbrera ere! Eta luze barik hasiko dira hara bidean kamioiak lokatzaz eta zikinez, eta laster izango dugu kaminoa lehenagoko moduan. Lastima!

Herri txokotik Elosu gainera bidean bizi garen bergarrei -beste edozeinetxi moduan- mesede ederra egiten die kaminoak, baina endrero batzuk sortu ere bai.

**Markos Balentziaga**

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

**TELKAR**

PHILLIPS SONY

ZERBITZU TEKNIKOA

IBARGARAI, 2 ☎ 76 27 11  
BERGARA

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

**Bazkariak  
eta  
afariak**

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

**ZABALETA ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34



## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## EDEL tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

**ileapaindegia**  
eder gela

**disdira**

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



KINU ARGAZKIA

### □ 1.933.eko kintoak

Joan den larunbatean, 1.912an jaiotako eta aurten 80 urte bete dituzten 14 bergarar bildu ziren anaiarteko eguna ospatzeko. Argazkian agertzen diren 1.933. urteko kinto hauek, lehenbizi, hildakoen omenezko meza izan zuten Santa Marinan eta, ondoren, bazkari ederra egiteko, Antxoni Jatetxera hurbildu ziren. Lagunarteko giro bikaina izan zuten eta datorren urtean ere tradizioari eutsi behar!!



### □ Peña Limako

Gazte hauek ziur ez zirela goiko argazkikoak bezain formal ibiliko. Peña Limakok, beren eguna ospatzeari ekin zion larunbat goizeko lehen ordotik eta jakin badakigu juerga igande gauerarte luzatu zela baten batzuren kasuan. Guztira, 22 eta 23 urteko 25 gazte bildu ziren Artatze Elkartearen bazkaltzeko eta Luis Iturricastillok guztion errekonozimendua jaso zuen sukaldari gisa. Primerako bazkaria eta guztiak dotore-dotore herriko kaleetan zehar txapel ta guzti poteo amaigabeen...

## REMENTERIA

### Altzariak

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

## TOKI-ONA

### Bodegoia-Taberna

*Eguneroko janariak / Txiteizajak  
Kazalatzak / Txabierrak*


Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53





□ **Estreinaldia**

Orfeoi Gazteak bere lehen kontzertua eskeini zuen joan den ostegunean Mizpirualde Egoitzan, Zaharren astearren barne. Aintzane Aranaren zuzendaritzapean, gazte hauek argi utzi zuten beren ahots kalitatea eta, orain, entsaiatzen jarraituko dute datozen emanaldietara begira. Oraindik ere prest daude gazte gehiago fitxatzeko, batez ere mutilen ahotsak falta direlarik. Interesatuok asteartero 7 t'erdietan izango duzue Zabalotegipeko aretoan lehen urratsak emateko aukera.



□ **Ioseba Egibar**

Ioseba Egibar Aretxababaletan bizi den mendizale bergararrak zilarrezko domina lortu zuen *Centre Excursionista de Catalunya* delakoak antolatutako LIV. Nazioarteko Mendiko Argazki Lehiaketan. Iosebak kolorezko kolezioen kategorian lortu zuen saria, *Lotzesar, Soloak, Maitasuna* eta *Izotzak* lanekin. Horrez gain, Vila de Gráciako Mendiko Ikusentzutezko VI. Mostran parte hartu du. Mendizale eta argazkilari bikaina...


**Zertan dibardute ba?**

ELISABET MENDIZABAL



Sarrikon Enpresaritza ikasketetan lizentziatuta dagoen 26 urteko bergarar hon ek Eusko Jaurlaritzako Merkatal eta Turismo Sailaren beka eskuratu du bere ikasketak Toronton (Kanada) urte t'erdiz osatzeko.

PELLO ALBERDI



Orain 34 urte Elgetan jaiotako margolari honek bere lanak ikusgai izango ditu Madrileko *La Kabala* arte galerian (Conde de Aranda, 10) abenduaren 19ra arte. Pellok 1.981 etik jartzen ditu erakusgai bere lanak.

**ARRASATEARRA**

Gure berezitasuna bazkariak. Eguneko menua daukagu.

**Taberna**

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

**HARATEGIA**

**ANTIA**

**URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



## Umore giroan

Soldau-kinto artian

Inguruetako soldau-kinto batzuk zozketa edo sorteo a eixera jua ziren Donostiara. Zozketa ondoren, asi ziran alkarren arteko galdera edo pre-guntak.

- Nora tokau jak?
- Neri Ferrolera.
- Neri Gasteizera.
- Neri fabrikako direktoriakin.

Bestiak, arritxuta:

- Zer esan dok?
- Papelak diñuana. Ara or!
- I, txotxo, or ez jiñok gero "director de fabrica", or jiñok "directo a Africa".

\* \* \*

**!Así sea!**

Primo de Riveran dictadura denboran pasau ei zan Plaentxian. Ango tabernari batek bazeulan lorito bat tabernan. Itxura

danez, oso demokrazia giroan azia. Lorito aren leloa au izaten ei zan.

- ¡Abajo la dictadura!  
¡abajo la dictadura!

Enterau dira guardia-zibilak ta bai amenazau be ugazaba. Kontuz ibiltzeko gero!

Bai plaentxiar tabernariak berbia emon be lorituk ez zebala geixago alakorik esango bere tabernan. Ta ara zer egin zeban: monjen komentuko loritukin trukau tabernakoa.

Andik egun batzutara, jua dira guardia-zibillak "inspesiñua" egitera. Ta loritua axaxatu naixan, esaten detse:

- Lorito, ¡abajo la dictadura!

Lorito barrixak -monjetatik ekarrixakuak- erantzun ei zeban:

- Así sea, por los siglos de los siglos.

**Pedro Zelaia**

## Antzinako kontuak

### Sta. Marinako erretaula multzoa

Sta. Marinako erretaula nagusiaren eraikuntza Bergarak XVIII. mendean izan zuen enpresa artistikorik garrantzitsuenetzat har daiteke, eta ez bakarrik obra honek alboetako erretaulen exekuzioa bultzatu zuelako osotasun estilistiko homogeneoa sortuz horrela, edo mende horretako eskultur multzo bikain bat ekarri ziolako Bergarari, baita bere eraginagatik ere: erretaulari buruzko kontzepzio berri bat agertu du, erregio osora zabalduko dena.

1.736an beste kontratu bat egon bazen ere, erretaula nagusiaren obrak berez 1.739an hasi ziren, eta beren errerealizazioa ez zen lau urtetara iritsi; Arrosariako Andre Maria eta Animen alboetako erretaulak aldi berean burutu ziren. Multzo guztia Miguel de Irazutaren lanari esker gauzatu zen. Era hortara, eta kanpaina bakar batean, presbiterioa eta Ebanjelioko nabearn ornamentua osatzeke gelditzen zen oraindik. Beharrezko baimenak jaso ondoren, obrak

1.756 eta 1.757 urte bitartean burutu ziren, egilea oraingo honetan Tomás de Jauregui izan zelarik.

Bergarak horrela, eta hamabost bat urtetako epean, monumentu multzo bikaina lortu zuen. Erretaula sail bat, batetik paregabea bere aintzuran, orden erraldoiko pilastra eta zutabeak erruz ornatzen dituena lore zein fruituzko bixirikorda haragitsuz, zintzilikaturo oihalez, eskutu eta panopliaz edo arrokaiako elementuz, eta bestetik, mugimenduari lehentasuna emandion egitura arras konplexua: elementu arkitektonikoak hautsi egiten dira argiluntasun joku biziak sortaraziz, perfil hautsiak arkitrabe eta erlaizetan agertzen, frontoiak azken muturreraino konplikatzen, eta kurba eta kiribildurak nonahi nagusitzen dira, rococo garaile atera zela Bergarako lurretan agerian utziz.

**M. Jose Aranburu  
Jesus Gil Massa**

## KATAIDE Jatetxea

### ASTEBUKAERETAKO MENUA

- Barazki pudina
- Legatz pudina
- Entsalada mistoa
- Askotariko fritoak
  - Arrain zopa
- Eskalope berezia
  - Txipirotiak
  - Xerra plantxan
- Txuleta pipar hautsaz
  - Tripakiak
  - Postrea

**1.300 pzta**

Kataide Pol.Ind. ARRASATE



## FUTBOLIN TXAPELKETAK

- AZAROAK 21:** Bergarako Gaztetxean (Binaka)
- AZAROAK 26:** Pol-Pol tabernan (Banaka)
- AZAROAK 27:** Berrizko Guzur tabernan (Binaka)
- ABENDUAK 3:** Gasteizko Itxasbe tabernan (Banaka)
- ABENDUAK 11:** Elorrioko Gaztetxean (Binaka)
- ABENDUAK 12:** Bergarako Gaztetxean: (Banaka)
- ABENDUAK 18:** Berrizko Topa tabernan (Binaka)

**LAM**

☎ 76 12 00 - 45 21 93 - 76 29 91


BERGARA DONOSTIA BERGARA

Billarak  
Futbolinak  
A Makinak





BELEN GARITAGOITIAK jaso du aste honetan ZUBIKUAK emandako saria.



**umelaga**  
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA  
= 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria  
ZUMELAGA JATETXEAk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Aurtengo abuztuan Ibarrako bi lagun eta Angiozarko batek Hegoamerikako "gailurra" den Akonkagua mendia igo dute, negu partean hori egiten duten gutxien artean beren izena idatziz.

Aste honetako galdera hauxe duzue:

**Zein garaierako mendia dugu Akonkagua eta zein da mendizale angiozartarraren izena?**



\_\_\_\_\_ izena

\_\_\_\_\_ abizena

\_\_\_\_\_ telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke






**Zumelaga**

**JATETXEA**

San Antonio 5  
BERGARA  
= 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

### **BELEN GARITAGOITIA**

Erantzuna: Kruz Gallastegik **Heward and Carwell University** ikasi zuen eta **Thomas H. Morgan** nobel saridunakin arto hibidoaren ikerketak burutu zituen.

**BELEN GARITAGOITIA** izan da aste honetako irabazlea.

**ZORIONAK !!**

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!

## **HERRAN ETXEA**

Sukaldeko altzariak  
Matxiategi, 4. 76 37 53



Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.  
Matxiategi, 3. 76 12 22



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



# Martin Arriaran, Espainiako Xake Txapelketatik bueltan

## □ Saskibaloia

Bergara Ibilikoek 12 puntuz irabazi zuten Zuyaren aurka. Bergararrak ezin hobeto ari dira 8 partidutik 6 irabazi dituztelarik. Larunbat honetan 6'30etatik aurrera kiroldegian Iruñako Argal liderraren bisita izango dute.

## □ Dirulaguntzak

Udal Kirol Zerbitzuak urtero kirolari eta kirol taldeei ematen dizkien dirulaguntzak eskuratzeko epea, azaroaren 10ean bukatzen da. Laguntza hauek ekintza puntuale-tarako edo urteko programa aurrera eramateko baliogarriak dira. Dokumentazioa aurkeztu baino lehen kirol zerbitzuko bulegotik pasatzea eskatzen zaizue.

Martin Arriaran xakelaria Madrilen jokatu zen Espainia mailako txapelketan aritu zen. Txapelketara lehen aldiz joan zen eta anekdota gisa esan, lehen Bergararra izan dela Espainiako txapelketan parte hartu duena. Martinek dioen bezala *"Txapelketara beldurpixka batekin joan nintzen han zegoen maila oso handia zelako, nire asmoa gutxienez puntu bat lortzea zen eta azkenean, 9 partida jokatu ondoren 2 puntu eta erdi lortu nituen; emaitza honek asko animatu nau"*.

Honez gain Martinek izan du aukera goi mailako xakelariekin hartu emanak izateko eta berak esan zigun moduan, *"Madrilera ikastera joan nintzen eta han maisu*



*Martin Arriaranek orain gazteak prestatu nahi ditu. garrantzitsu batzuk ezagutu eta jokaldi berriak lantzeko aukera ere izan dut".* Martin momentu hauetan preferente (2000 puntu) mailako jokalaria da eta txapelketan zehar bera baino maila handiagoko jokelariekin jokatu zuen, baina berak adierazi zigunez *"fitxa zuriekin ondo aritu nintzen bigarren partidari baintaila nuen arren tablak eskaini nizekion aurkakoari, puntu barik etortzea ez nuelako nahi, baina beltzekin ez nuen punturik lortu, beltzekin hobetu beharra daukat".* Aurrerantzean Martinek xakelari gazteak Euskadiko gazteen txapelketarako prestatu nahi ditu.

## Bergarak errez irabazi

Bergara preferenteko taldeak igandean Euskaldunaren aurka garaipena lortu zuen. Bergararrak 2 eta 0 irabazi zuten, Beitiaren mutilek bi golak bigarren zatian lortu zituzten. Partidu osoan zehar bergararrak izan genituen nagusi, baina aurrelariak ez zuten punteria onik izan Andoaindarraren porteria zultzeko orduan. Garaipenaren golak Estala eta Uciniek sartu zituzten, Ucin jokelariaren lehen partidua izan zen eta bere gol bikainarekin eta partidu osoan zehar egindako joko onarekin argi utzi zuen baduela tokirik talde nagusian.



**MINER Ardo onak,**  
**ardoa jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

**JOSE  
LUIS**

eta  
**MIKEL**

**URTEAGA, 6**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17





### *Angiozarko eskolako neska-koadrila*

**A**ber, barretxo bat" esan zien fotografoak eta bai kasu ere egin neskatilek. 1969 inguruko Angiozarko neskatila koadrila dugu argazkia bete-bete egin diguna.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara eta behetik hasita:

**Lehenengo ilaran:** Nerea Luarizaristi, Aintzane Belastegi, Espe Etxaniz, Tere Jaso, Mari Jose Lonbide, Mila Eguren, Rita Garitano, Mari Jose Inza eta Izaskun Eguren.

**Bigarren ilaran:** Sagrafio Gonzalez, Amaia Elorza, Miren Alberdi, Maria Jesus Garitano, Arrate Elorza, Begoña Aranzabal, Arantxa Eguren eta Edurne Loidi.

**Hirugarren ilaran:** Esmeralda Bermejo, Isabel Azula, Lore Eguren, Koro Loiti, Begoña Ugarte, Mila Etxaniz, Ana Rosa Elorza eta Arantxa Garitano.

**Laugarren ilaran:** Maria Jesus Garmendia, Itziar Gallastegi, Agurne Ugarte, Isabel Elorza, Kontxi Loidi, Balentina Retolaza, Rosa Mari Elizburu eta Elena Loiti.

*Estepan Plazaola*

## **IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## **KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean  
diplomatutako profesionalak  
Tarota · Hipnosia · Erresonantzia  
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



**ETXEBIZITZA**

Ganbarak ustua eta garbitzen ditugu.  
☎ 76 82 17.

Antzuolan pisua salgai, Ibarra 3, 6.C.an.  
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Harrizurin garajea salgai.  
☎ 74 30 55/ 74 43 19

Pisua salgai Bidekurutzetan. (5.000.000).  
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai  
☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 44 65.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian.  
☎ 12 12 71.

Espalorian garajea salgai  
☎ 76 23 27.

Deustun pisua osatzeko neska edo mutil euskaldun bat behar da.  
☎ 76 39 14.

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu.  
☎ 76 14 13 (gauzez)

Antzuolan etxebizitza salgai Errekalden.  
☎ 76 60 40.

Taberna alokatuko nuke  
☎ 76 53 73.

**SALDU-EROSI**

Koker arrazako txakur bat salgai (marroia).  
☎ 76 56 06.

Citroen AX Image SS-AG matrikuladuna salgai.  
☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Ardi txakurkuma salgai. 5 hilabete.  
☎ 76 54 53.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ere ematen ditut.  
☎ 76 44 34 (Amaia)

VESPA 200 bat salgai. Prezio onean.  
☎ 76 55 80.

3 atedun Opel Corsa 1.300 GTa salgai (SS-X).  
☎ 76 05 92 (gauzez).

Collie arrazako lau txakurkuma salgai. Prezio interesgarria. ☎ 15 04 41.

Bateria klaseak ematen dira.  
☎ 76 54 74 (Aitor).

OPEL CORSA SS-S gorria salgai. Prezio onean.  
☎ 76 55 80.

Petrollozko estufa salgai. ☎ 76 50 05.

3 pastilladun eta atzeko torreta erregulagarria duen kitarra berria salgai.  
☎ 76 61 99 (Oskar).

Kitarra akustikoa salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

OHoko klase partikularrak: ☎ 76 31 93.

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W.  
☎ (945) 27 92 73 (arratsalde) / 76 05 23 (gauzez).

Pasiatzeko bizikleta ia berria salgai.  
☎ 76 45 64.

**LANA**

Neska behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 45 53.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.  
☎ 76 36 06 (Marisol).

Fisika eta matematikako klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke.  
☎ 76 31 76.

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 60 65.

**Hildakoak**

VKosme Arrieta Arrizabalaga  
azaroak 15, 62 urte

**Jaiotakoak**

Aste honetan Epaitegian ez du inork jaiotakoan berri eman.

**AUTOPULLMANS ARABA**  
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

**IZARRA**  
Ileapaindegia



Mistoa

San Pedro 23 Tfnoa: 762972






**Gizon Emakume**

**BONAVENTURE** autentikoaren  
esklusiba daukagu!!...  
... eta gainera, **PEPE**, **DIESEL** eta  
**BSCO** markak!!

**Adi AZAROAN!!**

Gure dendan egiten duzun erosketa  
bakoitzeko, hil bukaeran zozketatuko  
dugun 50.000 pzta.ko saria eskuratzeko  
aukera emango dizun txartela oparituko  
dizugu.



Barrenkale 35 BERGARA ☎ 76 03 98



**ARGIA**  
egutegia

TAULAREKIN: 1.000 pzta.

TAULA BARIK: 800 pzta.

*Larunbat honetan eta  
hurrengoan, Zapatuetako  
Merkadilloaren ondoan,  
Zurradero kalean, salgai.*

*Aranzadi Ikastolara  
76 26 76 telefonora deituz  
eskura dezakezu.*